

IGI



ZURE POLTSIKOAN



Zurekin konektatuta,
non egon arren



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

Edukien taula

1. Zer da ISM en tu Bolsillo aplikazioa eta eta zeintzuk dira bere helburuak?.....	03
2. Nola eskuratu daiteke aplikazioa?.....	03
3. Nola sartu daiteke aplikaziora?.....	04
4. Zer egin dezaket aplikazioarekin?.....	05
🏠 Home.....	05
📁 Nire dokumentuak.....	06
🌐 Zerbitzuak.....	06
📋 Erregistroa.....	11
✉️ Kontsulta-Postontzia.....	11

1.

Zer da ISM en tu Bolsillo aplikazioa eta eta zeintzuk dira bere helburuak?

Gailu mugikorretarako aplikazio bat da, itsasoko eta arrantzako sektoreko pertsoneri Itsasoko Gizarte Institutuarekin (IGI) arreta-kanal bat izateko aukera ematen diena, eta edozein tokitatik izapide eta kudeaketa guztiak azkar, erraz eta seguru egiteko aukera ematen duena.

HELBURUAK:

- ✓ Itsasoko Gizarte Institutuaren bulegoetara joan beharrik gabe komunikazio pertsonalizatuko kanal iraunkor bat ezartzea.
- ✓ Administrazio elektronikoa integrala gaitzea.
- ✓ Eskuragarri dauden zerbitzuak gailu mugikorrean erabili ahal izatea (posta, denda, egutegia...)
- ✓ Izapide guztiak bulegora joan gabe egiteko aukera ematen duen tresna bat eskaintzea.

2.

Nola eskuratu daiteke aplikazioa?

ISM en tu Bolsillo aplikazioa Apple gailuetarako AppStoren eta Android gailuetarako GooglePlayn eskuragarri dago. Esteka hauen bidez ere deskargatu dezakezu aplikazioa:



3.

Nola sartu daiteke aplikaziora?

Identifikazio elektronikorako modu hauek daude:

SMS, Cl@ve iraunkorra, Cl@ve mugikorra, Ziurtagiri digitala

Erabilitako identifikazioa moduaren arabera, aplikazioa erabiltzeko aukerak zehaztuko dira:

- 1 SMS:** ezingo dituzu aplikazioak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eskuratu, ontziratze gaitasunaren mediku-ziurtagiria edo egindako itsas prestakuntzari buruzko informazioa, adibidez. Interneteko konexioa izan arren, ezingo zara sartu mugikor-estaldurarik ez baduzu.
- 2 Cl@ve iraunkorra:** aplikazioaren zerbitzu guztietara sartu ahal izango zara, interneterako sarbidea izanda ere mugikor-estaldurarik ez duzunean izan ezik.
- 3 Cl@ve mugikorra:** sinadurarik ez duenez, ezingo zara erregistrora sartu. Baina gainerako zerbitzuak normaltasunez erabili ahal izango dituzu. Kasu horretan, betiere Internetera konektatuta bazaude (nahiz eta mugikor-estaldurarik ez izan), aplikaziora sartu ahal izango zara; adibidez, ontziratuta zaudenean, ontzian WiFi-a baldin baduzu.
- 4 Ziurtagiri digitala:** aplikazioaren zerbitzu guztietara sartu ahal izango zara, baldin eta interneteko estaldura baduzu. Ez da beharrezkoa mugikor-estaldurarik izatea.



4.


Zer egin dezaket aplikazioarekin?

ISM en tu Bolsillo aplikazioak Gizarte Segurantzak (GS) zuri buruz duen informazioa eskuratzeko aukera ematen dizu, bai eta Itsasoko Langileen Araubide Berezian duzun lan-egoeraren araberako zerbitzu eta izapideak eskuratzeko ere (lanean, pentsioduna, langabea, etab.).

Aplikaziora sartzen, lehenengo bistaritzen dena oharren pantaila da. Irakurri ondoren, zure informazio pertsonala bistaritzen den hasierako pantailara pasa zaitezke:



Eskuineko hiru marratxoak sakatuz, Menú ISM pantailara sartuko zara. Bertan biometria aktibatu edo desaktibatu, aplikazioa hizkuntza aukeratzuz konfiguratu eta derrigorrezkoak ez diren oharra jaso edo ez aukeratu ahal izango dituzu. Halaber, aplikazioa baloratzeko aukera ematen du, baita gertakariak jakinarazteko edo iradokizunak bidaltzeko aukera ere.




Pantailaren behealdean, aplikazioaren atal guztien ikonoak agertzen dira. Une bakoitzean zu zaudena urdinez argitzen da. Ikonoak sakatuz gero, atal batetik bestera mugituko zara.



Nire dokumentuak


Atal honetan, aplikazioaren “Servicios” ataletik, Itsas Osasuna, Gizarte Segurantzza, Osasun Laguntza, Itsas Prestakuntza, Ontziko Osasun Gida eta aurreko gaiekin edo aplikazioarekin zerikusirik ez duten dokumentu pertsonalak gorde ditzakezu. Dokumentu horiek zure mugikorretik deskargatu eta edozein unetan kontsultatu ahal izango dituzu, interneteko konexiorik izan ez arren.





Zerbitzuak

AHemen aurkituko dituzu **Itsas Osasun** zerbitzuak:


- ✓ Txostenak eta ziurtagiriak (ontziratzeko gaitasunari buruzko mediku-ziurtagiria, mediku-txostena, espirometria, elektrokardiograma, analisia, etab.). Horietara sartu ahalko zara, eta, hori egitean, automatikoki deskargatuko zaizkizu “Mis documentos” (Nire dokumentuak) atalean.
- ✓ Ontziko osasun-gida
- ✓ Ospitale-ontzien kokapena
- ✓ Enpresak (botikinentzako laguntzak)



Azken aukera horren bidez, enpresek botikinetarako laguntza eska dezakete, enpresak bere izenean, inskribatutako ahaldun baten bidez edo ordezkari baten bidez eskatzeko aukera kontuan hartuta.



Ontziratzeneko gaitasunaren mediku-ziurtagiria eskuratu baduzu, bina oraindik sinatu ez baduzu, aplikazioaren bidez erraz egin ahal izango duzu eta zure sinadura biometrikoa ziurtagirian sartuko da.




Gizarte Segurantzako zerbitzuak:

Hemen ondorengo zerbitzuak erabil ditzakezu:

- ✓ **Zure erretiroa simulatzea.**
- ✓ **Osasun-laguntza:** eskubidea kontsultatu eta “jabearen ziurtagiria” eskuratu dezakezu. Ziurtagiri hori “Mis documentos” karpetan gordeko da. Europako Osasun-Txartela eta Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria ere eska ditzakezu.
- ✓ **Txostenak eta ziurtagiriak:** atal honetan, besteak beste, honakoak eskuratu daitezke: lan-bizitza txostena, COEren txostena, dirulaguntzen ziurtagiri integrala, kotizazio-oinarrien txostena, Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria, autonomoentzako Itsasoko Araubide Bereziko (IAB) ordainagiriak, identifikazio-datuen eta helbidearen txostena, langilearen egungo egoeraren txostena, IABren kotizazio-datuen txostena, lan-altaren txostena eta PFEZaren atxikipenen eta diru-sarreraren ziurtagiri zehatza, etab.


- ✓ **Bizi-agiria** (atzerrian bizi diren IGiko pentsiodunentzat): VIVESSerako esteka eskuratu daiteke (bizipenen egiaztapena egiteko aplikazioa). Hau erabiltzen baduzu, sortzen diren dokumentuetara sartu ahal izango zara, baita ISM en tu Bolsillo aplikazioaren bidez ere.
- ✓ **Langileentzako kuota-kalkuluen kontsulta**
- ✓ **IABko tarifa finkoari uko egitea/luzatzea**
- ✓ **Norbere konturako IABren aldez aurreko altak/bajak kentzea**
- ✓ **Norbere konturako IABren hainbat jarduera kudeatzea**



Itsas prestakuntzako zerbitzuak:

Hemen honakoa kontsulta dezakezu:

- ✓ Prestakuntza-ikastaroetarako **eskaera aktiboa**
- ✓ Osasun-arretaren arloko prestakuntza espezifikoaren ziurtagirien **iraungitzea**
- ✓ **Egindako ikastaroei** buruzko informazioa (egokitasun kalifikazioa)
- ✓ Programatutako **ikastaroen bilatzailea**





Aurretiko zita zerbitzuak:

- ✓ Itsasontziratze azterketa medikoa
- ✓ Gainerako izapideak

IGIren bulegoen kokapena zerbitzuak:

- ✓ Mapa
- ✓ Zerrenda



Jakinarazpen elektronikoz zerbitzuak:


Revista Mar zerbitzua, Mar aldizkariaren web orrira bideratzen duena.

Informazio eta esteka interesgarriak zerbitzua. Itsas osasunari buruzko dibulgazio-kanpainak, Gizarte Segurantzaren gidak eta informazioa, eta ISMARINAREN argitalpenak kontsultatzeko aukera ematen du.



Erregistroa

Zerbitzu honen bidez, eskaera edo dokumentu bat aurkez diezaiokezu Itsasoko Gizarte Institutuari, erregistro elektronikoaren bidez. Beharrezkoa da sinadura duen identifikazio elektronikoa batekin sartzea. Aplikazioak honakoak adieraztea eskatuko dizu: kategoria (ziurtagiria, pentsioak, prestazioak edo dirulaguntzak, prestakuntza, etab.), tramite zehatza, probintzia eta telefono mugikor bat. Ondoren, beste ohar-pantaila bat eta “adjuntar archivo” (“erantsi fitxategia”) aukera agertuko da, eskaera-formularioa erantsi ahal izateko. Formularioa bete ondoren, zure mugikorrean gordeta eduki beharko duzu.




Kontsulta-Postontzia

Aukera honen bidez, IGiri kontsulta bat egin diezaiokezu, aldez aurretik probintzia eta kontsulta horren gaia adierazita. Erantzuna emandako helbide elektronikoa berera bidaliko da.



ITSASOKO GIZARTE INSTITUTOA

Web orria Egoitza elektronikoa ISM aplikazioa zure poltsikoan deskargatu



INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren argitalpen-programan sartutako argitalpena (829/2023 Errege Dekretua, azaroaren 20koa)

Argitalpen honetan paper ekologikoa erabili da, kontratazio publikoaren ingurumen-irizpideen arabera.

<https://cpage.mpr.gob.es>

Nipo papel: 123-25-046-4

Nipo digital: 123-25-047-X

Depósito legal: M 25744-2025



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA